

Euskal AEko biztanleen % 15,1ek osasun-laguntzako aseguria dute


Aseguria dutenen kopuruak % 3,9 egin zuen gora Euskal Aen; horrenbestez, aurreko urteetan izandako joera eten da.

2002an, 310.796 lagun zeuden aseguratuta aseguru libreko entitateetan (aurrerantzean, ALE), aurreko urtean baino % 3,9 gehiago. Datu horrek adierazten du Euskal AEko biztanleen % 15,1 osasun-laguntzako 158.158 polizen onuradun direla, EUSTATen datuen arabera.

Lurralde historikoak bereizita, Bizkaian dago, oraindik ere, osasun-laguntzako aseguria egiteko joerarik handiena, han baitago proportziorik handiena biztanleko (% 19,9). Araban (% 13,4) eta Gipuzkoan (% 7,9) txikiagoa da. Hala ere, kopuru erlatiboetan, Araban gehitu ziren gehienik aseguratuak (% 5) 2001. urtearen aldean; Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, % 4 eta % 3 gehitu ziren, hurrenez hurren.

Euskal AEko aseguratu-kopuruaren gehikuntza hori (% 3,9) Estatuan izan dena (% 2,9) baino handiagoa da, eta azken zortzi urteko (1994-2001) joeraren aldaketa ekarri du, urte-bitarte hartan aseguratuaren kopurua etengabe murriztu baitzen.

Grafikoa: Aseguratu-kopurua, 1994 eta 2002 bitartean



Iturria: EUSTAT

Poliza-modalitateari begiratuta, banakakoa edo familiako polizek hartzen dituzte barruan aseguratutako gehienak, % 54,9. Hurrengoak, enpresetarako edo bestelako kolektibo konkretuetarako polizak dira (% 25,8), eta mutualitate publikoenak (% 19,3). Dena dela, poliza kolektiboak gora jarraitzen du, aurreko hiru urtean (1999-2001) bezalaxe. Poliza kolektiboak izan du hazkunderik handiena (% 6,1), 2001. urtearen aldean; banakakoa edo familiako polizak eta mutualitate publikoak, berriz, % 3,3 eta % 4,4 hazi ziren, hurrenez hurren.

2002an **osasun-laguntzako aseguru-sektorean bildutako primak, guztira**, 137 milioi euro baino gehiago izan ziren. Hala, bada, aurreko urtearen aldean, % 5,8 baino gehiagoko gehikuntza izan zuten, eta Euskal AEko BPGaren % 0,3 hartu zuten.

Aseguratuko batez besteko prima, Euskal AE osorako, 441 eurokoa izan zen, hots, Estatuan izandakoaren (443 euro) antzekoa. Hortaz, 2001. urtetik, % 1,8ko igoera neurritsua gertatu zen. Banakako edo familiako modalitatean, gehikuntza hori % 4,2koa izan zen. Beste kolektiboen modalitatean, aldiz, % 1,6ko beheratzea gertatu zen, eta mutualitate publikoetan ia ez zen aldaketarik izan.

ALEn osotasunean, aseguru pribatuko osasun-sektoreak bere aseguratuak guztira 8.019 **profesional** eskaini zizkien. Lehen mailako arretarako, medikuntza orokorreko 1.285 mediku eta 331 pediatra dira; eta arreta espezializaturako, 5.494 espezialista. Eremu horretan, odontologia, tokoginekologia eta traumatologia izan ziren profesional gehien eskaini ziren espezialitateak.

Aseguratuen gehikuntza horrek berekin ekarri zuen mediku- eta ospitale-laguntzako jardura gehitzea. Guztira 1.164.635 **kontsultari** kasu egin zieten ALEtan aseguraturako biztanleen artean (2001ean baino % 3,3 gehiago). Horiek horrela, aseguraturako 3,7 kontsulta izan ziren, batez beste. Aseguratuek gehien erabilitako espezialitateak hauek izan ziren: traumatologia (100 aseguraturako 48 kontsulta, batez beste) eta, ondoren, pediatria eta tokoginekologia (bieten ere, batez beste 41 kontsulta, 100 aseguraturako)

Mediku-aseguratzaileretatik zetozen pazienteek guztira 40.186 **ospitale-ingresu** izan zituzten, 2001ean baino % 7,8 gehiago. Hartara, Euskal AEn 2002an izandako ospitale-ingresu guztien % 14,7 izan ziren. Beste alde batetik, ALE erregimenean ospitaleratutakoen % 72,3ri **ebakuntza kirurgikoa** egin zieten: guztira 29.066 ebakuntza (aurreko urtean baino % 4,2 gehiago).

Taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko ALEen bilakaera

	Euskal AE		
	2002	2001	Δ02/01
Aseguratuak	310.796	299.050	3,9
Biztanleria aseguraturua (%)	15,1	14,4	4,9
Polizak	158.158	151.849	4,2
Poliza-motak			
Banakakoak edo familiakoak	97.644	94.494	3,3
Mutualitate publikoak	21.604	20.689	4,4
Bestelako kolektiboak	38.910	36.666	6,1
Primak (mila €)	137.086	129.520	5,8
Prima biztanleko (€)	441	433	1,8
Gastuak guztira (mila €)	138.311	134.515	2,8
Sarrerak guztira (mila €)	144.806	136.601	6,0
ASISTENTZIA-JARDUERA			
Kontsultak (mila)	1.165	1.128	3,3
Paziente ospitaleratuak	40.186	37.281	7,8
Ebakuntza kirurgikoak	29.066	27.893	4,2

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández

Tel.: +34-945 017 548. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es